

PRENTSARAKO OHARRA

18/10/08

Ahaldun Nagusiak berretsi dauenez, BGAEaren bitartez Bizkaian pentsino sistema publikoa “osatu” gura dabe, eta “ez ordeztu”

Joan dan irailaren 24an Politika Orokorreko Osokoan egin eban moduan, Unai Rementeria Ahaldun Nagusiak, barriro be, “enpleoko BGAEa eta horren sustapena ez doazela pentsino publikoen kontra” azpimarratu dau. Rementeriak esan dauen moduan, enpleoko BGAEa “osagarria da, eta ez ordezkatzaila”; “borondatezkoa da, eta ez derrigorrezkoa”; “parekidea da enpresak eta beharginak erdibana egiten dituelako ekarpenak”; “eta kapitalizetan diran funtsen gobernabilidada parekidea bermatzen dau”.

Ahaldun Nagusiak, bere berbaldian, Foru Aldundiak “pentsino publiko duinak” gura dituala azpimarratu dau, eta horreek “guztiz baztertu ezinak dirala”. “Geroa bizkaitar bat” aurrera eroateko interesari jagokonez, “daborduko existiduten dan formula hobetua” dala eta “alde guztiei helduarazo jakela” gogoratuaz dau Rementeriak.

Ahaldun Nagusiaren eretziz, “beharra modu egokian eta diskrezinoz egiten bada”, akordioak lortu ahal izango dira alde guztien artean.

Batzarretako taldeen txandan, Ahaldun Nagusiaren batzorderatzea eskatu dauen Podemos Bizkaia eta EH Bildu proposamen horren kontra agertu dira. Neskutz Rodriguez Podemos Bizkaia taldeko bozeroalearen berbetan, osagarri horrek “pentsinoen sistema publikoa kaltetzen dau”, alde batetik “BGAEek ez dabelako gizarte segurantzian kotizetan”, eta bestetik, borondatezkoak diranez, “indibidualizazioa indartzen dabelako, eta ez alkartasun kolektiboa”.

Ildo berean, Arantza Urkaregi EH Bilduko bozeroaleak proposamenaren kontrako bere jarrera berretsi dau, bere eretziz BGAEa “pentsinoen sistema publikoaren lehiakide zuzena dalako”.

Oposizinoan gainerako taldeei jagokonez, Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak esan dauenez BGAEa “beharrezkoa” da. “Uste dot oso garrantzitsua dala beharginen eta enpresarien arteko akordioa lortzea, sindikatuak barru dirala”, adierazto dau, hori guztia “diskrezinoz” egin beharra azpimarratu eta gero.

Javier Ruiz Talde Popularreko bozeroalea be proposamenagaz ados agertu da. Bere taldearen eretziz, “pentsinoak hobetzeak eta osatzeak, esfortzu kolektiboa eskatzeaz gain, erakundearen aldetik bultzada txiki bat be eskatzen dau”.

Ekain Rico batzordekide sozialistaren eretziz, lehentasunak “pentsinoen sistema publikoa bermatzea” izaten jarraitzen dau, eta horretarako, bere taldearen eretziz, beharrezkoa da soldatak igotzea “eta ondorioz, baita kotizazioak be”, eta “batez be, pentsinoen sistema publikoaren diru-sarreraren iturrietara joatea”.

Taldeen txanda ixteko, Jon Atutxa bozeroale jeltzaleak, proposamena “positiboa” dala esan dau, “etorkizunean ibilpide emonkorra izan daikealako, negoziazio kolektiboan aldeek holan erabagiten badabe”. Hori dala eta, Atutxak “beharrean jarraitza” animau ditu aldeak, akordio “positiboak” lortzeko. “Helburua etorkizunera begiratzea da”, adierazo dau.

LURRALDE MUGEN ALDAKETEAK

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe gaur Zaldibarko eta Ermuko Udalek sinatu daben akordioa, euren udal mugarteak aldatzeko. Horrez gain, batzordeak Zaldibarko armariaren onespina be aho batez onetsi dau.

JAI EGUNAK

Beste alde batetik, Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeak ez dau onetsi Talde Mistoak bultzatutako arauz besteko proposamena. Bertan, “Bizkaiko jaiegun Balendin Berriotxo (garagarrilaren 4a) edo Loiolako San Inazio (garagarrilaren 31) egunak urtero aukeratzeko erespidearen ganeko akordioa hartzeko eta jente guztiari jakinarazoteko” eskatzen jakon Foru Aldundiari.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak esan dauenez “hori holan egin ezker, herritarrek euren egutegia aurretik ezagutu ahal izango leukie”. Dana dala, Batzordeko talde guztiek adierazo dabe herritarren artean ez dagola gai horri buruzko ardurarik eta, hori dala eta, ez daukala lehentasunik. Ekimenak Talde Mistoaren aldeko botoa baino ez dau jaso. Talde Popularra abstenidu egin da, eta ganerako taldeek ezezko botoa emon dabe.

NOTA DE PRENSA

08/10/18

El Diputado General reitera que con la EPSV buscan “complementar” el sistema público de pensiones en Bizkaia, “no sustuirlo”

Como ya hizo durante el Pleno de Política General del pasado 24 de septiembre, el Diputado General Unai Rementeria ha remarcado nuevamente que “una EPSV de empleo y su promoción no va en contra de las pensiones públicas”. Como ha manifestado Rementeria, una EPSV de empleo es “complementaría no sustitutiva”; es “voluntaria no obligatoria”; “es paritaria porque se aporta tanto por la empresa como por la persona trabajadora a partes iguales”; y “garantiza una gobernabilidad paritaria de los fondos que se capitalizan”.

El Diputado General, durante su discurso, ha subrayado que la Diputación Foral quiere “una pensiones públicas dignas”, y que éstas “son totalmente irrenunciables”. En cuanto al interés por llevar adelante “un geroa vizcaíno”, Rementeria ha recordado que ésta se trata de “una fórmula mejorada que ya existe” y que “ha sido trasladada a todas las partes”.

En opinión del Diputado General “con el debido trabajo y debida discreción” será posible alcanzar acuerdos entre todas las partes.

En el turno de intervención de los grupos junteros tanto Podemos Bizkaia – grupo que ha solicitado la comparecencia del Diputado General-, como EH Bildu se han mostrado contrarios a esta propuesta. Según la portavoz de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodriguez, este complemento “va en detrimento del sistema público de pensiones” ya que, por un lado, “las EPSVs no cotizan en la seguridad social”, y por otro lado, al ser voluntarias “potencia la individualización y no la solidaridad colectiva”.

En la misma línea, la portavoz de EH Bildu Arantza Urkaregi ha reiterado su posición contraria la propuesta al entender que la EPSV “compite directamente con el sistema público de pensiones”.

Por parte del resto de grupos de la oposición, el portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa ha tildado las EPSV como algo “necesario”. “Creo que es muy importante que se logre ese acuerdo entre trabajadores y empresarios, incluyendo a los sindicatos”, ha manifestado no sin antes remarcar la necesidad de que se realice “con discreción”.

El portavoz del Grupo Popular, Javier Ruiz, también se ha mostrado de acuerdo con la propuesta. En opinión de su grupo “mejorar y complementar esas pensiones no solo requiere un esfuerzo colectivo” sino que “también requiere un pequeño estímulo por la parte institucional”.

Para el apoderado socialista Ekain Rico, la prioridad sigue siendo “garantizar el sistema público de pensiones”, para lo cual su grupo ve necesario subir los salarios, “y por lo tanto las cotizaciones”, y “fundamentalmente ir a las fuentes de ingresos del sistema público de pensiones”.

Cerrando el turno de los grupos, el portavoz nacionalista Jon Atutxa ha definido la propuesta como “positiva” ya que “puede tener uno fructífero recorrido en un futuro siempre y cuando las partes así lo acuerden en la negociación colectiva”. Por esta razón, Atutxa ha animado a todas las partes a “seguir trabajando” para lograr unos acuerdos “positivos”. “Se trata de mirar al futuro”, ha manifestado.

MODIFICACIÓN DE LÍMITES TERRITORIALES

Las Juntas Generales de Bizkaia, han aprobado también hoy por unanimidad el acuerdo suscrito por los ayuntamientos de Zaldibar y Ermua para la alteración de sus términos municipales. Asimismo, la comisión también ha aprobado por unanimidad el escudo de Zaldibar.

FESTIVOS

Por otra parte, la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia ha rechazado una proposición no de norma impulsada por el Grupo Mixto en la que se instaba a la Diputación Foral de Bizkaia a que “adopte y haga público un acuerdo sobre el criterio anual de elección de la celebración como festivo en Bizkaia bien de San Valentín de Berriotxo (4 de julio) o bien de San Ignacio de Loyola (31 de julio)”.

El portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa ha argumentado que “esto permitiría a los ciudadanos organizar su calendario con antelación”. No obstante todos los grupos junteros han coincidido en que no existe una preocupación por parte de la ciudadanía en torno a este asunto, y que por lo tanto no es prioritario. La iniciativa únicamente ha contado con el voto favorable del Grupo Mixto. Grupo Popular se ha abstenido y el resto de grupos han votado “no”.